

A 1 MAILA

ENTZUMENAREN TRANSKRIPZIOA

ZINEMARA GOAZ

Amaia eta Josu, paseatzen ari direla, ilunabarrean zinemara joatea erabakitzen dute. Pelikula aukeratzea falta zaie bakarrik, baina hori ez da hain lan erraza izango.

AMAIA- Ikasturte Aurrera doa eta ni oso nekatuta nago.

JOSU- Bai, lanerako bizi gara: eskolak, lanak, liburutegia... Atsedena behar dugu.

AMAIA- Bai. Aizu, Josu, gaur gauean, kalean bokata bat afaldu eta zinemara joango gara?

JOSU- Ideia bikaina!. Ondo etorriko zaigu: tiroak, borrokak eta karrerak ikusi, eta lasai-lasai aterako gara.

AMAIA- Ni ez noa zinemara tiroak ikustera.

JOSU- A, ez? Zer ikusi nahi duzu?

AMAIA- Ba, ez dakit. Nik zinemara joan eta lasai egon nahi dut: barre egin, palomita jan...

JOSU- Plan zoragarria!

JOSU- Eta... Zientzia-fikziozko bat, behintzat?

AMAIA- A, ez, zerbait sinpleagoa, klasikoa. Ai, begira! Adibidez, Antzar-zopa, Marx anaiena. Etxe ondoan emango dute, parkeko lorategian.

JOSU- Antzar-zopa? Zer da hori?

AMAIA- Ez duzu ezagutzen? Duck soup famatua, Marx anaiena!

JOSU- A, ama! Ingelesez emango dute?

AMAIA- Ba, azpitoluekin. Baina oso ona da.

JOSU- Zuretzak azpitoluak irakurtzea ondo pasatzea da? Aspergarria da!

AMAIA- Josu, komunikazioko masterra egiten ari zara, eta ez duzu kulturarekin interesik?

JOSU- Tiro batzuk, Amaia. Tiro bat... eta ni konforme!

AMAIA- Mutil hau izugarria da.

JOSU- Kulturak ez du atsedeniak hartzen, ala? Hitchcock-ek ere ikusiko zuen, tarteka, indio eta bakeroen pelikularik, seguru!

AMAIA- Bai, hala izango da; baina oso gutxitan dago aukera parkean pelikula bat ikusteko. Eta oso ona da pelikula.

JOSU- Ai...

AMAIA- Tiro asko ez da egongo agian, baina kolpeak...milaka, ziur! Oso ondo pasatuko duzu!

JOSU- Ai... zenbat sakrifizio kulturaren izenean.

AMAIA- Bueno, bueno, Josu, ez zaitetz dramatiko jarri, e?

A1 MAILA

ENTZUMENAREN ULERMENA

EGITEKOA: Entzun ondoren, erantzun galdera hauek.

1. Zer proposatu dio Amaiak Josuri?
 - Etxera joatea.
 - Bokata bat afaldu eta zinemara joatea.
 - Atsedetik hartzea.
2. Azkenean, noren plana egingo dute?
 - Amaiarena.
 - Josurena.
 - Beste batena.
3. Nolako filmak gustatzen zaizkio Josuri?
 - Beldurrezko filmak.
 - Borroka eta tirozkoak.
 - Klasikoak.
4. Zein film ikusi nahi du Amaiak?
 - Antzar-zopa.
 - Nemo.
 - Haizeak eramandakoa.
5. Zer ari da Josu ikasten?
 - Kazetaritza.
 - Magisteritza.
 - Komunikazioko masterra.
6. Non emango dute pelikula?
 - Parkeko lorategian, etxe ondoan.
 - Herriko plazan.
 - Herriko gizarte etxean.